

Katolikoek eta komunisten arteko elkarrizketaz

Seigarren BRANKA'n agertuko azterketari segida emateko, huna hemen Jose Azurmendi'ren artikuluen jarraitzapena :

V. BERRIRO ELKARRIZKETAREN MUGEZ. ELKARRIKINTZA, BAI : ETA GERO ? ORDEZKARIA TA ORDEZKOTZA. DESKONFIANTZA

Gaiaren aldetik markatu nahi izan dizkiozu zuk mugak elkarrizketari, adixkide Martin Irumugarrieta. Elkarriztegileen eta elkarrekintzaren aldetik (jomuga dan ezker) markatu nahi nizkioke nik, orain.

Bildur naiz elkarrizketa hau hastean. Maiz entzuten da katolikoek artean zuekiko baezpadako hau : beren interesetarako, propagandarako ta, *aprobetxatu* nahi zaituzte. Edo : „tonto utillaren” jokua egiten ari zera... Integristak bakarrik esaten ote dute hori ?

Komunisten literaturan ere ez dira antzeko tonoa falta : „idea marxistek hartu duten herrikoitasuna” aprobetxatu nahi omen dugu guk ; edo, taktika hutsa omen da jokabide hau, zuek landutako zimentuen gainean fedeari dorre berriak eraikitzeke. Ez da mesfidarik falta bi aldeetan.

Ba, besteok bildur badira, beharko bildurdu ni ere. Nola ez, bildur diranentxe ordezkari agertu nahi nuke-ta ! Berealaxe esango dit norbaitek hau ez dala umeendako jolasik, neronek ez baneki bezala. Sartu banaiz, ez da neure burua eginkizun honetarako egokientzat neukalako. Ordua ba zalako eta egin zezaketenagoak patxara galtzen ez dutelako. Eta konforme ez nagolako, ez Irumugarrieta-rekin, ez Muruzabal-ekin.

Elkarrizketak errepresentatibitatea, ordezkotza esijitzen du elkarrizketariengan. Guk katoliko eta zuek marxista hitzegin behar dugu. Garaudy-k egiten duenak (alegia, objezio konkretu edo gertakizun kritikagarri bat kontraritzen zaionean, „nik protestatu nuen” erantzun) elkarrizketaren koadro derrigorrekoari iges egiten dio.. Ez dio elkarriketari serbitzen. Plano personalegira kizkurtzen baitu elkarriketa eta hori ez zaigu hemen ardura. Ezin geure iritzi personalekin gehiegi joka genezake, ze, orduan elkarrizketaren partehartzaille hipotetikoak espektadore edo begiratzaille soil bihurtuko genituzke. Ekin-tzarakotan ari omen geranez, bestetik, berez datorrena da ekin-tza ez dala bakarrean eramaten, taldean baizik (komunistak

batez ere, Alderdi hextu trabatu baten Erakundean diardutenez : alegia, Alderdi Komunistako lagunkideak, Alderdiaren aginduekin konforme badago ta ez badago obeditu behar du. (Cfr. *Die Kommunistische Partei der Sowjetunion in Resolutionen, Beschlüssen...*, Wolfgang Leonhard-en itzulpenean, cfr. *Sowjetideologie heute*, 2. Band, or. 43). Gogora Machovec-*ez* horrialde 13 esandakoak. Beronek esaten zuen : gu intelektuallak gera, ez politikoak. Eta gure eragiña kaxkarra da politikan. Hori komunistak intelektual batek gogoratzen badigu, ez da guk ahaz dezagun izango.

Herri bat daukagu gure atzean, (eta zuek Partidu bat), zeinen ordezkartzan ari geran elkarrekin hitzegiten. Herri bik aritu behar dute, gure bitartez, elkarriketan. Hori da interesante, ez norbera bakoitzaren pentsakera. Eta hortan saiatu behar dugu. Azkenorduan, ba, elkarriketaren helburu ez da iñola ere zu eta ni elkarganatzea edo hurbiltzea edo ekintzarako lotzea, ezpada talde biren elkar ezagutzea eta elkarregitea. Nola iritxi holakorik, ordea, nik idatzitakoan ez katolikoek beren burua eta ez zuk haiena ezagutzerik egongo balitz ? Zertako zure erantzunak, nire galderak nireak bakarrik izan baziran ? Sobera egingo dugu hori, nai ezta ere.

Katoliko danak ez gera iritzi batekoak, zuek ere ez. Baiña zuek ekintza *batuko* Erakunde *batua* zerate, gu ez. Ekintzarakoan errezago da zuentzat, bada, zein ekintzaren asmo duzuten esatea, guretzat baiño. Guk ez daukagu iñor, sinismendungatik, ekintza batasunera bearretsirik. Beraz, Muruzabal-ek eta nik ekintzaren alderdi teorikoa eramane daikegu, apika, baiña hortik aurrera ezin esan genezake iñoren ordezkartza dugunik.

Permiti zaizkidazu ohar pare bat, anaia Muruzabal : guk bezala pentsatzen ez duten katolikoeri predikatzeko ez dugu kulpito homunistarik behar. Barka zaidazu, orratio, Ignacio Muruzabal, apaizkide anaia, zure jokaera zearo ulerteziña egiten bazait. Ulerteziña, zuk erabiltzeko, elkarriketa honetan erabiltzeko... Ez dakit nundik ez. „Los católicos progresistas les decimos con toda sinceridad y honradez a los católicos reaccionarios e inmovilistas,” etc. (baiña serio esandako etcetera). Ez hizkuntza klase hori ta ez ezer ulertzen dut prediku hortatik. Anaiartean, baiña „etsaiaren” arrimotik egiteko !...

Arrisku bat dauka gaiñera jokaera horrek, zergatik geure gain hartu ez daukaguna : Makabeotarren liburuan ezagutzen dituzu Bakides eta Alkime Apaiznagusi nahia (Kap. VII, vv. 8 ta urr.) judegueri pake promesaz doakiena, judeguen etsai amorratuenen eskutik...

Harekintxe alderatuka gaituzte, asko deskuidatzen bagera. Eta, ez hitzegite hutsagatik, ez liberal agertzeagatik, baizik frutu batzuek irixteagatik zabaltzen badugu elkarriketa, ezin debaldetan permiti genezake holako susmorik. Benetan katoliko erreazionarioak bere lozorrotik iratzarri nahi badituzu, benetan nahi, ordea, ez dut zure hizkuntza ulertzen, eta gutxia-

go horretarako kulpita *Arragoa* hartu izana. (Komunistek ez dituzte beren barneko eztabaida eta goibeheak „Jesusen Biotzaren Deian” edo „Karmelen” izkatzen.) Edo ikaragarri aldrebes nabil holako jendeaz dudan ezagueran edo ikaragarria da zure despistea. Nekez asma zittekean metodo txarragorik. Aralar-ko tontorrean igoegia ez bazabiltza jakin behar zenuke nik baiño hobeto halako apostrofeak zeinzentzat diran on, ta zeinzentzat kaltegarri. Ez dizut ikutu orduko adarrak estaltzen dituen karakolaren adibidea gogoratuko, seguru asko aspertuta zauzka-ta. Zentzu arrontenak erakusten digunez, ordea, karakolaren adarrak ikusi nahi badituzu ez duzu bide on adar punttan zirikatzea. Beren egia izan ohi dute topikoak ere.

Ezin ixil dezaizuket zur ta lur irakurri dudala zure lana punta batetik besteraiño, neure burua (zure apaiz euskal kondizioan hartu baituzu oiñarri) kokatzeko tarte egoki bat aurkitu ezinda. Elkarrizketarako prontoen dauden euskal apaizen artean ez dakit zenbaitetik berdindu ahal izango dituzten beren buruak zurearekin. Ez da kasualidade izango, noski erlijioari, dugun eta genuen Jerarkiari, Euskalerrian ere ba omen ditugun „gran número de integristas, jansenistas, inmovilistas” horri, San Inazio-ri, gure kristautasunaren „estilo feudalari”, deabruak daki zeini, hainbeste zorigaizto aurkitu ta ez diozula komunismoari desditxarik batere ikusten nunbait. Irumugarrieta-k, berean, ez zuen komunisten okerrak aitortzeko nekerik beregainartu, baiña gure zenbait salatzen zituen, hori komeni omen zaigulako ; zuk, berriz, aldrebes pentatuko duzu nunbait, egin aldrebes egin duzu behintzat : geureak aitortu. Haiiek okerrik ez duketelako, apika. Injustiziaren aurrean mutu dagoelako salatzen duzu Jerarkia ; mututu egin dutelako injustiziaz ez zera oroitu. Eta hamaika etc. trixte...

Elkarrizketa egin, egin behar da noski, hori egunaren argia da. Joanes XXIII, Paulo VI, sinisgabeen Sekretariotza, Konzilioa, nahi duzun guztia, uste hori indartzeko. Baiña zer honetan nolakoa, elkarrizketaren metodoa ta naturaleza, ez dira galduirabazirik gabekoak, ez da egiten danarekin zerikusirik gabeko beronen nolakoa. Nire iritziz hau ez da nire bakarrik, lehenik ; komunistek berek egiten eta eskatzen dutenaren logikabidean ez zaudela ere agertu nahi nizuke.

Elkarrizketariok lehenengo behar duguna da ordezkoko egiten diegunek nolabait gure ordezkotza onartu dezatela. Errepresentatibidade hau zerak eman lezaiguke : *Jerarkiako* izateak („Obispos e abades, quantos han dignidat / pastores son clamados sobre Christandat.” Berceo). Baiña ez gera, eta hasiera honetan ez izatea ez txar eta ez on irizten dut nik, guztiz bidezkoa baizik. *Teologo*, santu edo ez dakit nolako personalidade ezagunak izateak, bestela : Rahner edo Metz-ekin gertatzen danez. Horien iritzian fida gintezke. Edo, hirugarrenik, ordezkoko egiten diegun haien iritzien *lekukotza zintzoak* eman lezai-

guke ordezkari-tza horren autentikotasun zigilua. Hau da, uste dut, gure kasua.

Guk hartu dugun perspektiba ezkerro, Euskalerrria erreprezentatzea tokatzen zaigu guri. Jaun Muruzabal apaizak herri onen alderdi bat agertu digu : euskalerrri aurreramin, liberal, progresista, atezabalaren zati bat. Besteri helduko diot nik. Ez herri atzeratiaren alderdiri, ezpada edozein herri taldek, nire aburuan, duen zerbaiti : mesfida, deskonfiantza, ustegaitza. Agian gehienak dira Euskalerrrian komunstekin elkarrizketa nahi luketenak, baiña, nik uste, gehienak ezezik danak (Muruzabal-ek agiri ez arren ; ez dut bazterreratzen salbu baten ahala) dute bildur pixka bat eta puska bat deskonfiantza. Hau da, ba, elkarrizketarako pronto agertzearekin batera aitortu beharreko duguna, gure prontotasunaren ahuleria aitortzeko eta elkarrizketa baldintza gauzazkoetan koadratzeko, ez utopiazko zimentuen gainean alfer alferrik abiatu.

Erantsi beharko ote diot justifikaziorik bildur honi ? Ez dut uste. Deskonfiantza hau, nahi bada ta ez bada, sustraituegia iruditzen zait edozeineñek ez ikusteko.

Gaiñera, ez da euskaldunona bakarrik errezelo au. Frantzia-n ere ikusten dugu (cfr. *Témoignage Chrétien*, 24 mars 1966), Italia-n ez gutxiago. Ruggero Orfei italiar filosofo katoliko ta komunstekin elkarriztegilleak komunisten aurrez aurre „mesfida sustantziala” duela aitortu digu. Elkarrizketaok Italia-n hasi zituen Mario Gozzini-k ere berriz eta berriz finkatzen du, hasten duten komunista katolikoaren arteko elkarrizketa (alegia, honetarako iniziativa, Italia-n, katolikoena izandu zan) ez dala politikaren maillakoa (berak inposible uste du mailla honetan, oraingoz) kulturarenkoa baizik. (Hauxe gogoratu nahi nuke analisi honen akaberan.) Bildur dira gobernu komunistak ere, Salzburg-eko Biltzarrekoan (1965) agertu zuten. Sinisgabeen Sekretariotza-ko Buruzagi Kardinal König Biltzar honetara hotsegiña izandu zan orduko, izan ere, egin zuten gobernu komunista gehienek atzerantza, Biltzarrok Vaticano-aren maneju omen ziran aitzakian. Erroma ere ez da fiatzen, ezta Joan XXIII bera ere : ez du besterik agiri Irumugarrieta-ren or. 78, 4 oharren azkenaldeak.

Hor daukagu errezeloa nunahi. Eta ez ote dute apika euskal komunistak berak ere beste horrenbesteko mesfidarik ? Garbi dago baiezkoa. Urrungo lurretako adibideak utzita, zer besterik adierazten dizkigute Irumugarrieta-ren idazkiko 74-75 orrialdeek ? Ez dituzu ahaztu, ez ixildu (nahiz gauza joana izan : „...todo eso — casi todo, más exactamente — pertenece al pasado”) Elizaren makiña bat tatxa. Permitti zaizkidazu gogoraberritzea : Eliza feudalismoaren eta absolutismoaren sostengu izan da, faxismoaren eustzaille, „Gurutza-daren” bedeinkatzaile, *Quadragesimo Anno* enziklikak ez zituen langilleen zuzentzazko eskubideak ezagun, teologo gehienek eta ospetsuenek

ez dira batere zozial arazoez arduratu eta arduratu badira, oratio, ez dira asko luzitu . . .

Nik ez dut guztia ukatuko. Halare, haun Irumugarrieta, zuk dakarzkizun datuon konformidadean, guk ere zerbait esan dezaizuekegula zueri dirudit, permiti zaidazu, ba, puntua osatzea. Ez nago seguru ez ote naizen murgilduko zuk aldebateratu nahiago zenukean „planteamiento de tópicos aviesos y ofensivos” (or. 76) hartan. Ba dakit ez dala elegante besteren konzientzia aztertzen aritze hori ; lege oneko dirudit, halare, zuk guri gogoratzen diguzuna guk orobatsu zueri gogoratzea. Zerorrek diozunez ez baituzu zuk ere hori guztia ahaztu elkarrizketaren hastapenean (or. 75), eta Garaudy-k, antzeko beste akusazio zerrenda lodi bat holaxe justifikatu digu : hori guztia ez ahaztea eta bai gogoratzea komeni zaigu, elkarrizketa ez idealizatzeko (cfr. *De l'Anathème au Dialogue*, Kap. III, atal c).

Konforme, ba : ez bada komeni ez ditugu ahaztuko. Baiña orduan, eta Elizak barrabaskeriak egin dituela ukatu gabe, ez ote ditu komunismoak deabrukeriak egin, gero ? Hoek ere ezin ahaztuko ditugu . . . Errusia-n, erreboluzio garaian eta ondoren (cfr. Fischer-en aipatu liburua, or. 105-108). Alemania-n, neronen begiek ikusi behar izan dute gusta izan baiño gehiago muga desdixadu hortan. Ungaria ! . . .

Zoragarria izan behar du iñola ere Errusia-n idazle ta intelektualek gozartzen duten askatasuna : Alexander Essenin Volpin filosofoa (Essenin poetaren seme eta tribunale juridiko baten sikiatria etxeratu zuena), Valery Tarsis periodista, Mitxel Naritza eskulturagillea, Pasternak Nobel saria, Vladimir Ossipov 22 urteko idazlea, Guinzburg deportatua, Brodski . . . eta dexente gehiago lekuko. Zarismoak Sibiria-ra deportatu zuen Dostoiewski. Baiña zarismoaren ateak hitxi ziran arren, zabalik daude Sibiria-ko ateak intelektualentzat.

Idazleen ondotik, aldizkari klandestino debekatuen zerrenda bat oraindik (ez URSS zarismoaren maillatik irtetzekoan, askoz geroagoerneak baizik, aipatzeko aldizkariok 1956 ezkerokoak izango baitira, beraz, erreboluzioaren semeek egiñak) : „Botoi Urdiña”, „Espirala”, „Sintaxi”, „Cocktail”, „Fenix”, „Kampaia”, „Esfingeak” (nik dakidala, bizirik dago oraindik azkeneko hau, poliziak arrapa dezan artean). Horietako gehienak poesia aldizkari ziran eta — uste dut — horietako bat ere ez kapitalista, baizik Estaduaren dirijismoa ta Partidu bakarraren aginte guztijakintsua onartzen ez zutenak. Zorte bera poeta elkarte zenbaiten : „Maiakowski Zirkulua”, Mozku Unibersidadeko *Smog* erakunde klandestino-ko poeta zenbait (Julia Vichnevskaya — 16 urteko poetisa ! Leonidas Gubanov) etc. Beren poesiaren kalitate eskaxa poliziak erabaki du. *Smog* erakunde „extremistak” 1956-an preso sail bat izan zuen, Mozku Unibersidadeko zalaparta batzuek zirala-ta, Siniawski-Daniel arazoan beste zenbait berriro.

Eta ez bakarrik kontrarioen kontra. Ez zaigu falta beste iri-

tzitako zan komunistarik, desterruko, gartzelako edo kanposantuko bideak ibilli dituenik. Hilda gero rehabilitatuak izan dira batzuek, ez dakit asko poztuko ziran haien hillobietako belarrak. Togliatti ez da kapitalistek engaiñatu duten susmopean ereriko ta haren itzak birlandatuko ditugu : komunisten arteko „reciproca persecuzione senza fine” kofesatzen digu honek (cfr. *l'Unità*, 15.3.1956). Horrelako zerbait aitortzen zigun Krutxofek, URSS-eko K. Alderdiaren XXII Biltzarrak orobat, Maenkovek London-en deklaratzeko zuenez (1956, epaillak 19) stalinismoak utzitako nahasmendua txukuntzen ari zan orduan URSS. Stalinismoaren ondarea, komunista autoreren batzueri irakurri diedanez, hipokresia zan, bildurra, askatasunik eza eta holakoxe aberastasunak... Nola txukuntzen ote zebiltzan ? Nik ez dakit, baiña urte hortatixe ezkerokoak ziran, hain zuzen, aipatutako aldizkari debekatuak. Stalin galdu zanean airea pixka bat lasaitu zalakoan erretako aldizkariak. Gure oroitzapenean daude oraindik André Siniawski ta Yuri Daniel. Hoen kondenaigai izan ziran idazkiak *Epoca* italiar asterokoak argitaratu zituen... Ez nintzan batere harritu *Aragon*-en protestaz ; idazlearen kondenez, ordea, bai ta ez gutxi. Gutxiak signifikatzen du asko, nunbait. Gubanov : komunista zintzoa zan eta poeta gailena Siniawski eta Daniel-en alde agertu zan artean. Orduan, berriz, sikiatria etxera joan behar izan zuen. (Izan ere, edozein eretzeko gauzak dira noizean behin gertatzen !).

Stalin ? Hobe pakean utzi... Ondo ixilik euki zituzten, ordea, bai K. Alderdiak bai aldizkariak haren traketseriak, beste „nagusi” batek desestalinizatu zuen arte. (Partiduaren gainetik jardun zala esan digute, aren krudelkerietatik libre gelditzeko interesatuak zeudenak, hori ezer justifikatzea balitz bezala. Gaiñera, ez da konprenitzen nola Europa-ko Partidu guztiek menderatuzera — Frantzia-koa, Italia-koa, etc. kontaturik — etorri zitekean). Gero Krutxof zeru bat zan ! Ankapetik pasa digute, ordea, orain : Krutxof ere peillo bat gertatu da, ez lehenago uste erazi ziguten jeinu sinpatikoa.

Onezkero ez dakigu bihar ez ote dugun beste antzekorik entzun beharko, gaur egiten diranez. Hauxe da txarrena. Ze, gaur ere zerbait pasatzen da. Gaur bertan, 3.7.1967, judizio bat hasi da Praga-n Jan Benes idazlearen kontra. Eta berriro ixtiluak eta zalapartak idazlearen artean. Txekoslovakia-ko Demokrazia Herritarrak ez du oraindik azaldu idazlea zertaz akusatu dagon. Ba da zerbait, gortinaren atzetik illun dabilkiguna. Praga-ko idazlearen 4. garren Biltzarra egunotan bertan saski naski bat bihurtu ei da. Biltzar honek idazle Alkartasunaren buruzagitzarako aurkeztu duen 45 izeneko zerrenda zapuztu egin du Partiduak, zeren ondoren beren kandidatura abandonatu dute idazle zenbaitak (Ludwig Vaculik poeta komunistak, Pavel Kohout dramatikoak, Vaclav Havel sartaldeko hizkuntzetara itzuliriko dramatiko ez komunistak, beste zenbaiten artean), Partiduaren eskusartze honen aurka protestatzeko. Ikus,

Frankfurter Allgemeine, 3.7.1967 izen gehiago. Ixtillu hau ez dugu zernahi, nolana ere : „Ezin jasan dezakegu gehiago, joandako urteok 'bigarren illunaldiko' Aro bihurtu ditugulako akusazioa. Asmo onetakoak ziran, alare, 4. garren Biltzarreko idazleren batzuen jardunaldiak ; eraso baitiote batzu batzuek ala Partiduaren politikari ala Estaduaren herri bai atzerripolitikari. Eta klaseen bategintzarako Ideologia burjesetara itzulirik, glase burrukari uko egin diote... Jende hoek apika hemen, Txekoslovakian, geure etxean, 'hirugarren indar' bate-nak joka naika dizkigute. Ez dira, ordea, erreazioari laguntzen dion indar baizik” (*Rude Pravo*, Alderdi komunistaren aldizkari ofiziala, *Frankf. Allgemeine* aipatuak itzulia). Hala eraso dio asarre gorrian Alderdiaren Sekretario ta Estadu Lendakariak Biltzarre honi. Lendakaritza intelektualeri filosofia irakasteko zanik ez genekien arranetan !... Platon-en *Errepublikan* egon bear dugu (15).

Egunotan bertan jakiten dugu baita ere Mozku-ko Teatrarako askatasun nahiren batzuek ankaz gora joan dirala.

Beraz, ez da errezelarik falta ezta errezeloarentzat arrazoirik ere : intelektualekin gaizki, gobernarien aldetik bere denporaren erdia baiño gehiago „tirania” krudel izan dugularik, jo du bai komunismoaren mailluak ingudea ez zan besterik galanki eta igitaiak garia ez zanik moztu.

Zeiñena da, orduan, komunismoan irabazia ? Ez da erlijio-arena izango, ba ? Langilleena, akaso ? Beharbada, baiña ez dirudi beste akatsok barkatzeko lain galantzia haundia dutenik. Havemann-ek digunez langilleak deskontentu daude DDR-en beintzat, eta beren adu neketsuaren balioa (bihar eder bat partu) ulertzen erakutsi beharko litzaike, indarpetu ordez. Gaiñera, ez dira behin bakarrik gertatuak, langilleen (batez ere nekazarien) eta Partiduaren arteko liskarrak. Dokumentu komunistak aztertzea nahiko dugu holakoen aztarnak, eta deklarazio gardenak ere, idorotzeko... Langilleria derrigorrean obligatzen da biharko zoriona gaurko zoritxarraz gertutzero eta hori ezin du langilleak onartu (cfr. Havemann, *Dialektik ohne Dogma*, or. 151-159). Tira ba : kondairarena ote da galantzia ? Hela esaten digute. „La historia nos absolverá...” Baiña nor da kondaira ?

Eta zer pentsa oraindik Battista-ren aldamenen bapo zegoen K. Alderdi Cuba-koaz ? (Eta „revolución verde oliva” lagundu zuen hainbeste katolikori tokatu zaion nahigabeaz ?) Eta Frantzia-koaz Algeria-ko nazional matxinadan, edo arabeez kurdotarrenean edo URSS-ekoaz, Mao-ren gerrakoan, ez dakit nolako internazionalismoaren interesen aitzakitan Txiang-Kai-Xek laguntzen, edo Hitler-ekin Polonia-z erabakitzeoan ? Eta

(15) *Dubeck'en eforrera baiño lehenago idatzia da artikulua hau (I-ren oharra).*

zergatik jakiten ditugu orain, Italia-ko Alderdi K. erdibitu danean, langilleen diruarekin egin omen dituzten malaparteak ?

Gure „joana” ez duzu ahaztu ; zuen hain joana ez dana ezin ahaz dezakegu. Liburu gehiegi daude hortaz (propagandarako ipuiak utzita ere) gertakari gehiago biltzen neka nadin. Kapitalismoak hortaratu duelako izango da, edo ez dakit nik zergatik, baiña komunismoa, (bere garai inguruan jaiotako nazismoa ta faxismoa bezala) jaio zan egunetik beretik gaur arte trajeria ikaragarri bat izan da.

Ez dakit, adixkide Irumugarrieta, horiek guztiak „tópicos aviesos y ofensivos” izango ote diran (agoantatu behar izan dituztenentzat bai dirala „avieso y ofensivo”, baiña ez topiko !). Garaudy-ren eta zeure logikan, horiek ere gogar-azteko zirala iruditu zait.

Beraz, Irumugarrieta, gu pekatari, baiña agian ez pekatarietak.

Eta ohar bat craindik : katolizismoak besteen makurrak *sostengatu* dituela diozu zuk. Nik berriz, komunismoak *berak egin* dituela esaten dut. Teorikoago esanda : „hontaz, diferentzia sustraiko bat dago katolizismoaren eta komunismoaren artean : katolizismoa, teoriaren nahiz praxiaren maillan, erlijio da eta dirau, eta erlijioaren enborrean adar dezake irakaspén zozial bat, eta hontatik politika bat erne ; komunismoa, ordea, teoriaren nahiz praxiaren maillan, mogimendu politiko da eta dirau...” Ala gogoratu nahi nuke Ruggero Orfei-ekin. Esate baterako, bereizkuntza au gogoan izaki beste forma bat hartuko liguke Elizak askatasuna mozten duelako objezioak. Erroma-k liburu bat Index-ean sartzen duenean (iragana hori ere) eta agintari komunistek berori egin (orainaldi : Kafka, Dostoiewski — argitalpenak zentsuraren gorai-zek laburtuta agertzen baitira eta besteren batzuek batere ez, teatro berrikoak bereziki) oso mailla desberdiñetan jarduten dira bata eta bestea.

Hau guztia ukatzerik ez daukazute. Italiarren antzera, zuen komunismoa ez dala Demokrazia Herritarrena bezalakoa izango, aginduko ote diguzue ? Zuek zeron „bidea” eramango dutela ? Horretarako, ordea, lehenengo, ez da konprenitzen, askatasunaren eta justiziaren alde zaudeten ezker, zergatik ez dituzuen (italiarrak egin duten bezala) zeraok kritikatu ; ta bigarren, zuen „bidearen” propiatsunak konkreto ezagun behar-ko genituzke.

Guzti haien ondorengo, faltso zeratela esaten du askok (ikus-ten duzu ez naizela irenista !), eta errezeloa pizten da guztion-gan. Nire iritzi irmea da, ba, elkarrizketa jator, egiati, eta giza-tiarraren lehenengoetako eginkizun, mesfida honen zezenari adarretatik heltzea dala, ez toreatzea. Ez da batere atsegiña eginkizun hau, askoz atsegiñago da hau guztia artxibatu eta tolerantearena egin. Askoz „modernoago” da, gaiñera. Baiña elkarrizketaren naturaleza, ots, geran bezalako agertu ta elkar

ezagutu, faltseatzen badugu ez da sekula elkarrekintza leialik posible izango. Hauxe da elkarriketaren asmoa : elkarrekintza ahaleko ote dan argitu.

Komunistek edonor bezalako jende agertu nahi dute : horretarako nahi dute elkarriketa, propagandarako. Hori entzuten da. Gure jokua gizabidezkoa izango dala itxaron nahi nuke, bestela ez dago ezeren ezer hasterik-eta. Uste dudanez, elkarriketa hau oraingoz behiñepehin kulturaren maillakoa da (italiarrak azaldu bezala), ez politikarenekoa. Hura, etorriko baltz, geroagoko da. Beste puntu bat da, komunismoa beste edozein sistema bezalakotzat daukagun ala ez, zearo diferentea.

Ez ditut komunismoaren akatsak guzti horrek pixu erremediogabea duelakoan astindu. Besterik azaltzen digu, nik uste, komunismoari nabari zaion aldanahiak (erakunde zabal haundien kasu guztietan gertatu ohi dan gisan, askotan nola aldatu asmatu ezinda bezalatsu badirudi ere). Elkarriketak, hain zuzen, hauxe argitu behar liguke : zein ta zenbait aldatu dan. Garaudy-k esaten zuena (hamar urte atzeratutako teologiaren mintzaira duenarekin ez daukazutela elkarriketaz) komunisteri bihurtzea era posible izango dalakoan bainago.

Deskonfiantza dago : etsai maltzurregia dugu au, elkarriketarentzat, nolnahi ahazteko. Buru egin behar zaio. Gutxitan ematen du mesfida honek aurpegi garbirik, hain zuzen dana dalakoxe : mesfida. Argitu beharrean dago, halare, menderatuko bada. Analisi ximen bat burutu beharko digu, ba, norbaitek. Iturburuak garbitu, ondorengoak zeaztu. Honek ez baitu elkarriketaren izpiritua kontraesaten (nahiz eta emango digun sortzailletzat komunisten Elizari gaiñeraturiko kalbarioa, askatasun eza, indarkeria, etc.), bere egiazko naturalezara bihurri baizik.

Azkeneko atala iriki baiño lehen mesfida honen agerkera bati heldu nahi diot. Zer gertatuko litzaieke zuen elkartueri, baldin zuek Agintea iritxiko bazenute ? Ots, oraingo katoliko progresistak laguntzaille aproposenak gerta dakizkizueke apika injustiziazko egoera bat purrukatzeko. Gure kasu konkretuan ez dira falta, diozutenez, elkarrekintzarako pronto daukazuten katolikoak : zerbait *desegiteko*, ots, diktadura ankaz gora botatzeko. Ez ahaztu, halare, desegitea ere ba dala kondairan. Hori, Hegel-en ezkerotzik eta kontraesanaren eta berdintasunaren printzipoak malmetitu xamar irtetzen omen diran arren, majo beregain jaso digu marxismoak (hau da, gai edo *izante* baten baiezkua, positibotasuna bapatean — aldiberean bai adiberean — bere buruaren baiezkua ta ezezko izatea, alegia, barneko *kontraesana* edo kontragintza da dialektikaren muiña). Hortaz landa, orobat, erantzuneko gizonak bere ekintzaren ondorenak begiratu behar ditu. Eta demagun elkarrekintza honek zuen Aginpidea duela ondoko. Alessandro Natta-k zabal zabal segurtatu baidigu elkarriketaren bai elkarrekintzaren xedea, komunistentzat, Aginpidea irixtekoa dala (cfr. *Rinascita*, 12.2.1966).

Eta zozialismora iragaiteko bideak eta erak ugari ta diferen-teak izan ditezkeala marxismoaren tradizio jatorrenean finka-tua badago ere (Marx, Engels, Lenin, Krutxof, Mikoian, Sus-low, Kuusinen, Togliatti, Thorez...) honek ez du esan nahi, Leoncio Peña-k illunargitan uzten digun „forma parlamentaria” izango lukeanik Proletariotzaren Diktaturak, ezta hau „una coa-lición de partidos políticos” izango litzakeanik ere (*Arragoa*, 2, or. 99). Komunista Alderdien 12. garren Mozku-ko Biltzarrean (1957) erabaki zanez, nolana hiko dala ere „bidea”, gidaritza ta indarraren bihotza Komunista Alderdiari dagokio beti. Le-oncio Peña-ren hitz hori konprentituko nuke nik, Errusia-rekiko hainbeste debozio harrigarri (niregatik ba duke eskubide!) agiri ez balu. Baiña zailxeago gertatzen zait ulertzeko bere hitzak Errusia-ko unibersitarioen eskuliburuetan (beraz, iras-kaspen ofizialean) irakurtzen dudanarekin kontraesanean ez balegoz. Hoetan irakurtzen baitut, Diktadura ta garaipen aur-retik Alderdi diferenteak elkarrekin dezaketela, baiña garai-penaren ondoren, Diktaturakoan, Partidu bakarra dala behar-rezko („eine einheitliche marxistisch-leninistische Partei”, cfr. *Grundlagen des Marxismus-Leninismus*, errusieratik itzulia, Berlin sortaldekoan argitaratua, 1960, or. 610). Alderdi komu-nistaren gidari eginkizun hau ez da bozemaiteen bidez eraba-kitzen, jakiña danez. Langilleriaren egiteko historikoak („his-torische Mission” !!!) erabakitzen du hori, eta egiteko horren ordezkari konzientziadun eta ahalmenduna — organizatua, era-tua dalako — Alderdi komunista da, liburu berak irakasten digunez. Eta bertan irakurtzen jarraituz, „Alderdi komunistari dagokio Estaduaren Politika erabakitzea”. Alderdi komunistak, ez bakarrik politika orokarra, baizik Estaduaren organo *guztiak* eta gizarte erakunde *guztiak* gidatu behar ditu. Honetarako oiñarri Lenin-en idazkietan hartzen dute liburuak (*Der „linke Radikalismus”, die Kinderkrankheit im Kommunismus*). Beste-lako Alderdi ez-komunistak ametitzen dira (Polonia, Txekoslo-bakia, Hungaria) baiña Alderdi Komunistaren lehenengotza ta gidaritza ezagutzen badute bakarrik (cfr. Wolfgang Leonhard, *Sowjetideologie heute*, 2. Band, or. 169-162). Bide parlamenta-rio bat, liburuok digutenez, ehundaka urteko demokrazia duten herrietan eta agintera bozemaiteen bidez irixten diranean izan-go litzake posible. Eta orduan ere kapitalismoa likidatzeko prestu leudeken Alderdiak geldituko lirake bizirik. Besteak ez. Leoncio Peña-ren hitzak, ba, esan hutsa baiño zerbait gehiago izan beharko luke sinesgarri gerta dedin. Frantzia-n edo Ita-lia-n esaten dana gure egoerara beste gabe birlandatzea ez bai-dirudit hain errez (ala demokrazian ote gaude?). Bihar hur-billean parlamentarismoa zuek gertagarri onartzea gaurko egoera onegiriztea dirudit...

Beraz, nolakoa izango da orduan gaurko elkartuen zoria? Askatasuna, benetan, ala iges egin, ixilik gelditu ala „pare-dón”?... Cuba-k baiño askatasun gehiago, ekonomia sendoa-

go, elkarrekintza tradizio hextuago... ote dauzkagu? Etar-kizun librerik izango al lukete? Erantzuna erreza da, baiña zentzubikoa: erreazionarioek ez, besteak bai. Eskubidea zearo iñori kentzerik ez dagolaz gaiñera, nor da erreazionario? Nor da iñori eskubideak erabiltzea galerazteko jaun? Erreazionario nor dan ideologiaren arabera garbitzen da, ideologiaren egia ta gezurra erabakitzea, berriz, Alderdiaren eta Agintearen esku uzten dituzue... Beraz, izan dezakegu ondo denpora guztietako filosoforik prestuena ta azkarrena, marxista ez dalako edo iza-nik Aginpidearekin ados ez balego, erreazionario erabakiko digu Aginteak, ez dauka ba zeregiñik. Eta jarri filosofoen lekuan poeta, (zer gertatu zaie URSS-en Becket, Jonesku etceterari?), dramatikoak... Au dana bota dezaiguke Partiduak ankaz gora. Beno, eta Agintea Stalin bat gertatuko balitzaigu? Hortxe, baitago kakoa: edozein sistema da berez on (K. Rahner-ek Salzburg-en, 1965; eta geroago *Der Dialog*, 1966, liburuan) baiña Stalin bat ahalik inposibleen egingo ligukean sistema bil-latu beharko litzake, nik uste, eta sistema hori ez dirudi komu-nista danik. Ez naiz amesetan ari: Dr. Wenzlaff DDR-ko filo-sofoak dionez hain zuzen filosofo burutsuenak eta zentzudune-nak („vor allem die klugen u. vernünftigen Philosophen“) izan omen baiziran Stalin-pean gehien sofritzea tokatu zitzaienak. Alderdiak euki behar luke hainbeste erantzukizun eta eskuarte ta ahal, alako „tirano“ bat zentzunera bihurtzeko edo garaiz erauzteko. Baiña ezin badu, hobe da orduan Aginpidearen kon-trol ahalmenak herri osoaren esku utzi.

Personari begirune osoa: hori da euskal apaizen tradizioan nik ikusten dudana. „Irurehunentzartan,“ orain Franco-ri egin diotenean, Maiatzak 1.eko parteartzeetan, beti. Eta, nik uste, katoliko guztiok bat gatoz honetan. Horrexen garantiak nahi ditugu: ez dut uste honetan plurala erabiltzea neurea ez dan bururen iritzirik txumurkatzen duenik.

Ekintza gaur elkartzea bihar ere elkarrekiten jarrai dezake-tenekin izango litzake jator. Honetarako, berriz, gaurko pro-gresistak biar erreazionario nola bihurtuko lirakean arau zea-tzez finkatu beharko genuke. Hamaika jenderentzat, esate ba-terako, komunismoa bera erreazionario baita, zenbait saihetse-tan, filosofian bereziki.

Hau guztia argitu beharko litzake elkarrizketatik elkarrekin-tzara pasa aurretik (aski izango ote da hitzarena beste garan-tiarik gabe?). Alde batzutan ez da hain zailla. Muruzabal-en adibideetan maixeatuz ta Irumugarrieta-renetara etorririk, Helder Camara ta maiatzak 1.eko apaizak progresista omen dira. Baiña irudimena asko arriskatu gabe aurrera genezake, agian, Aginpidea komunista balitz, horietzek, eta ez besterik, izango lirakeala orduan ere protestatuko luketenak. Gaurko askatasun ezaren kontra daudenak biharkoaren kontra ere egongo lirake, horietako gehienek behintzat ez dutelako Prole-

tariotzaren Diktadurarik onartzen, ez marxismoak harentzat duen justifikaziorik ametitzen.

Beharbada hoek izango luketela libertade ta hitzegiteko komentzi ? Berdin da : ala *guretzat* nai ote dugu askatasuna ta ez guztiontzat ? Komunismoa ere gizonek osatzen dutela akordaturik *a priori* baieztu liteke akatsik ez zaiola faltako. Zein askatasun izango du orduan edozeiñek okerrak kritikatzeko ? Pixka pixkana erremediatuko dituela komunismoak, eta kritikak langille klasearen konzientzia kraskatzen duela ? (Hori baitio norbaitek !) Beste norbaitek ere erremediatuko lituzke, denpora asko ta laguntasun gehiago ematen bazaizkio, eta kritikatzan zaionean aberriaren batasuna etetzen dala errepikatzen du . . .

Hau guztia dala-ta gelditzen dira frantziar katolikoak oraindik mesfidaturik, eta italiar intelektual katolikoek uste dute, gaur gaurkoz, komunista katolikoek arteko bategintza politikorik ez dala posible. Eta horregatixe Rahner-ek : katolizismoak ezin onar lezake „gizaldi bat urrengoaren alde Molok-i basakiro sakrifikatzerik”. Cfr. baita ere Jules Girardi, *Revue Philosophique de Louvain*, 1966, or. 281-307 : gizona kondairari sakrifikatua).

Ze, gizon gauzazko ta erreal bakarra bizi dana da, ez etortzeko dagona, ez filosofiak „interpretatzen” duena. Gizon bakoi-tzak du bere nortasunaren Trazendentzia (gaurko marxistak azkenean ere noizpait arretaz begiratzen hasi dirana) eta, kondairako izaki bezala, bere noiztasunaren beinbakarrekotasuna (Havemann-ek esango lukeanez) edozein politikak salbatu ta zaindu behar dizkionak. Eta hau, erreazionario dala ta ez dala, nolana ere gizona adjetibo ximel bat baiño zerbait gehiago da-ta. Horregatik euki behar ditu, gure aburuan, giza eskubideen mugatzeak ere bere mugak, diranak dirala, hausi ezin ditezkeanak. Marxismoak, oster, personari buruz filosofia erkin, kaxkar eta milindrina duela aitorturik ere, ez du politika edo ekonomi interesengatik personaz erabakitzekeo begirameturik. Bere personarekiko printzipioen eskastasun aitortu horregatik, marxismoak *ez daki* zer ta zenbait baliogo alferrik hondatzen dituen, zio ekonomiko nahiz politikoen bidezkotasunaren arabera gizonak, erreazionarioak bederik, zapaltzen ta zanpatzen dituen. Eta baliogo horiek oraindik ezezagun eta izkutu izanik, ez daki galtzen duena salbatu nahi dana baiño askoz garrantzizkoago ta baliozkoago ez ote dan (16), persona-

(16) *Sarrailh Ihartza-kok makur hauxe bera egozten diola Engels-i dirudit (neuk aren kritikaren zuzentasunaz iritzi nahi gabe). Nazio koxkorren nazionahia (ta bere sustrai, hizkuntza) erdeiñatzen omen baizituen Engels-ek (BRANKA, zenb. 1, or. 7) horien berezko baliogoak, ezdeus etsirik, klase burrukaren morrontzan jartzeko. Engels-ek*

listak uste duten ginoan. Ez dakienaz erabakitzen. (Zer harritzeko ba, marxismoa filosofia bezala aidean zintzilika dagola aitortzeak ?)

Egia da filosofo marxistak gaur, batek baiño gehiagok beintzat, oinperatze hori arras gaitzesten dutela. Filosofoen eragiña aula izateaz beste (Machovec) halare, ez digute exenplorik aurkezten, gaurdaiñoakoan. Nola zillegiztatu ideologiaren izenean gizonak gizona bortxatzerik ? (Ez baitut uste puntua bera ukatuko didazutenik, hainbeste filosofo marxista beronen inguruan eztabaidan dabiltzanean (Adam Schaff-ek ba du libruru bat, *La filosofia dell'uomo*, italiar filosofoek bapo zigorkatu dutena). Ai, jaunak ! Frantzia-ko edo Ingalaterra-ko askatasun demokratikoak Demokrazia Herritarretakoak baiño jatorrago badira . . .

Elkarrekintzaren aurretik, elkarriketa, argia ta luzea. Eta bene benetan, ez dugu ariña izango.

JOSE AZURMENDI

etzekien nunbait klase burruka bezain baliotsu omen dala naziotasuna, ots, hizkuntza. Eta halare aixa erabakitzen zuen hartaz. „Un hecho que es mucho más relativo que el problema de las naciones” (ots, klase burruka, zuzen ulertzen badut) nagusierazten zion gorengo dan nazioaiari (cfr. BRANKA, zenb. 3-4, or. 11-16). Sarrailh Ihartzakoren tesiek, puntu onetan, Marx bera ere kritikatzten eta ahalmengabetzen ez ote duten nago (agian, gairiditzen eta aurreratzen, filosofia berriagoek hizkuntzari buruz eman diguten argitasunen laguntasunarekin : zergatik ez ? Bere garaiko jakintzaz baliatzen zan Marx). „Los comunistas se distinguen de otros partidos proletarios sólo en que, por una parte, en las diferentes luchas nacionales de los proletarios, anteponen y hacen valer los intereses comunes a todo el proletariado independientemente de la nacionalidad . . .” (Manifiesto Comunista, Leoncio Peña-k zitatu). Proletariotza bat, ezjakiña meriante, beste proletariotza baten kontra egon ditekeala ahaztu gabe. — Kritika honenezaz (kritika bada behiñepehin) ez naiz ni batere larde ; askoz gehiago txunditzen nau zenbaiten zitak arrazoi akabaila bihurtze harek.